


Baleike

Zumaiako herri aldizkaria. 24. zenb. 1996ko maiatza. 100 pzta.



*Zeinek zaintzen
ditu gure umeak?*

Festak

**San Telmotako
ajea kendu
ezinik**


Elkarrizketa

**Miren
"Torreberri"
eta futbol
kontuak**

Inkesta

**Lehen
Jaunartzeko
oroitzapenak**


Argazkiko ume batek
utzitako argazkia



1977 urtean lehen jaunartzea egin zuten mutiko prestuak ageri dira goiko argazkian. Gizakia ilargiratu zen urtean jaioak dira gehienak. Ezagutzen al dituzue? Joxe Manuel, Xabier, Jon, Gari, Aitor, Fernando, Ander, Luis...

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:



kutxa fundazioa
fundación kutxa

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:



CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

Argitaratzailea



Zumaiako Udalak diruz
lagunduriko aldizkaria



**BALEIKE
HERRI ALDIZKARIA**

Foronda kultur etxea
tfnoa: 86 10 56
faxes: 861742

argitaratzailea
**ZUMAIKO
GAZTE
BATZORDEA**

Ian taldea

Iratxe Aizpurua
Esther Martinez

Eneko Dorronsoro

Xabier Azkue

Igor Uranga

Josu Waliño

Gorka Zabaleta

Juan Luis Romatet

kolaboratzaileak

GEG, Natur taldea,

Miriam Romatet, Aintzane eta

konpainia, Kepa Aizpurua,

Imanol Manterola, Jon

Manzisor, Jon Ander Garcia,

Josu Egaña eta Arantxa

Eizagirre, Ainhoa Iturbe, Mattin,

Luis Mari Aizpurua, e.a.

publizitatea

861056 tlf.

inprimategia

Gertu Koop. E.

(Zubillaga - Oñati)

tirada: 850 ale

Lege gordailua: SS-405/94

**BALEIKEk ez du bere
gain hartzen aldizkarian
adierazitako
esanen eta iritzien
erantzukizunik.**

Ikastaroak
**Aerobic,
etengabeko
dantza** ... 22. orr.



Ze berri?
**Udaletxea
maketaz
gainezka**
...8. orria



Natura
**Itsaspeko
zinema
zikloa** ...26 orr.

Esan eta Izan


Irrati ezagun batean esan ohi duten esaldi horrek eman dit zer esana. Nire kasuan hiru urte dira esaten dudana sinatzen ez dudala, eta orain, hainbeste denbora igaro ondoren berriro ere esan, eta esanagatik izan beharra dudanean, hori nola izan daitekeen ahaztu zaidala iruditzen zait, ez baitakit zer esan.

Agian arazoa izan daiteke Zumaian ez dagoela ezer esatekorik. Ez. Udalak eskubaloi taldeari diru beharra izateagatik esatera behartzen diona ikusita badago zer esana. Beraz, agian arazoa da Zumaian ez dagoela ezer esaterik. Begira bestela Baleikeri esan eta izateagatik Udal berdinak esan dizkionak. Orduan, izan litekeena da ez dakigula gauzak nola esan, edo okerrago oraindik, ez dakigula zer izan: drogak zer izan daitezkeen esan ondoren, izan dira horrelakorik ezin daitekeela esan esan dutenak. Bai. Badirudi ez dakigula esaten duguna izaten. Xespir-ek esanaren antzera: izan ala ez esan, da de kuestion.

Guzti honekin, azken esana zera izan daiteke: Zumaian badagoela zer esatekorik, zer esanik eta batez ere zer izanik.

Ondo izan.

Josu
Waliño



PREMIAZKO TELEFONOAK:

Kultur Etxea	86 10 56	Ludoteka.....	14 32 64
Polikiroldegia.....	86 20 21	Tren geltokia.....	86 11 27
Gurutze gorria.....	86 10 93	Taxi geltokia.....	86 13 60
Udaletxea.....	86 02 50	Bake epaitegia.....	86 00 67
Gizarte Zerbitzuak.....	86 22 00	Posta.....	86 15 00
Osasun zentrua.....	86 08 62	Udaltzaingoa.....	86 18 70
San Juan Egoitza.....	86 12 73	Pilotalekua.....	86 2172
Pentsiodunen Egoitza....	86 17 00	Larrialdi zerbitzua.....	46 11 11
Musika eskola.....	86 11 83	Informazio sexuala.....	32 04 44

INTOLERANTEAK

EAJ/PNV Gaztedi Abertzaleak, **EGI**, Zumaiako herriari zuzendutako idatzi honen bitartez, Jarrai edo bere inguruko zenbait «**elementu inkontrolatuk (?)**» eragin dizkiguten erasoak azaldu nahi ditugu.

Aurten, San Telmotako festetan parte hartzeko asmotan, eta era berean gure ekintzetarako dirua atera nahian, txosna bat montatzea erabaki genuen.

Ekintza hauen aurrean Zumaiako EGik salaketa gogor bat egin nahi du

Beste taldeekin batera (AEK, Gestorak, Gazte Batzordea, Jarrai eta Ikasle Abertzaleak) Udalak txoznen antolaketarako deitutako bileretan egon ginen. Bilera hauetan giroa, itxuraz, «normala» izan zen, edo behintzat gure ordezkariak ez zuten gero gertatutakoaren arrastorik nabaritu:

Ostirala 12: txosna itxi eta handik bi ordotara horrelako pintadekin «apainduta» aurkitu genuen: «Zipaioak», «Españolazos», «Viva España», «Atutxa X»... Artistaren firmarik ez zen agertu. Inork ez zuen errebin-dikatu.

Zumaiako EGI

Larunbata 13: sinatu gabeko panfleto bat zabaldu zuten gure txosnari boikota egiteko eskatuz.

Ostirala 19: loktite bota ziguten zerrailan. Aldatu egin behar izan genuen.

Larunbata 20: talde batek pankarta bat zabaldu zigun aurrean, gure aurkako oihuak eginez.

Igandea 21: itxi orduko, arranodun banderak zituen mutiko talde batek (artean irekita zeuden txosnetan lanean ari zirenen eta inguruetan zebilen zenbaiten arduragabetasuna agerian geratu zelarik) txosna erasotu ziguten

kalte ugari eraginez. Ez ziren haundiagoak izan Udaltzaingoa agertu zelako.

Horretaz gain, etengabekoak izan dira probokazioak, irainak...

Ekintza hauen aurrean, Zumaiako **EGIk** salaketa gogor bat egin nahi du, eta «**Ezker Abertzale? Radikala**» delako zenbait **kontrolrik gabeko (?)** sektoreetatik sortzen diren ekimen probokatzaile hauek direla eta, gure erabateko gaitzespena adierazi.

Badakigu zuen asmoa euskal gaztedia bildurtzea eta probokatzea dela, baina ez duzue lortuko!

Bide batez, eskerrak eman nahi dizkiegu gurekin lanean ihardun dutenei eta gure txosnara hurbildu zareten guztioi. ■



kukutz
PUBLIZITATEA-SERIGRAFIA

- *KAMISETAK
- *KAPELAK
- *TXISKEROAK
- *TXANDALAK
- *PAPELEZKO POLTSAK

Baltasa Etxabe 7 Tfnoa: 860569

Erribera kalea 6
 Tel / faxa: 861707

**SENTSIBILITATE
DEMOKRATIKOAZ**


Herri honetan demokraziaz bizi garenetik gauza harrigarri asko entzun eta ikusteko aukera izan dugu. Baina horien artean batek, batez ere, harridura handia sortzen dit: HBko ordezkarien sentsibilitate «demokratikoak», hain zuzen Migel Aperribai, zinegotzia denarenak.

Abokatu eta historiadoreen aurrean nire ezjakintasuna aitortu behar dut, nire hitz jarioa oso murrizta da eta zeresanik ez nire ezagupen etimologiko edo filologikoak. Beraz «demokrazia» hitza zer den zehatz-mehatz oso ondo ez badut ezagutzen ere (herriaren agintea; sistema politiko bat) bai ondo dakidala zer den beldurrez bizitzea, mehatxupean... Zorionez, herri honek, etimologia gehiegi jakin gabe, demokrazian bizitzea erabaki du, hau da, gehiengoaren gobernua onartzea. Hala ere eta zoritxarrez, mundu guztiak ez dugu modu berean ulertzen horrek suposatzen duena.

Oso minduta sentitzen da HBko zinegotzia bere taldea Gobernu Batzordetik kanpo gelditu delako. Interesgarria litzateke adieraztea udalak nola funtzionatzen duen. Astero udaleko sei batzorde biltzen dira eta azken hau salbu, gainontzekoetan HBk parte hartzen du. Hau gutxi balitz bilera guzti hauetan aktak jaso eta banatu ere egiten dira (eta hori «demokrata» ez den alkate batekin egiten da!). Beraz, non dago sekretismoa?

Nola ulertu daiteke gobernu baten barruan oposizioa egotea? Beharbada HB bera ere hasi zitekeen

GUTUNAK



Atal honetan zumaiarren ohar, iritzi, kexa guztiak bildu nahi genituzke. Idatzi beldurrik gabe, NA zenbakia ahaztu gabe, eta utzi ezazu Forondan edota Joxe Manuelen kabinan.

eredu izaten eta bere Mahai Nazionallean (oso demokrata omen dena!) oposizioko edo beste alderdietako partaideak sartuz, edo Cuban esate baterako, Castroren gobernuan oposiziokoak egotea demokrazia eta gardentasunaren izenean. Pentsaezina, ezta?

Udal gobernuari dagokionez legea aplikatzea ez zaio batere gustatzen HBko ordezkariari, baina herri honetan norbait badago legea zorrotz erabiltzen duena, hori HB edo bere ordezkariak edo ingurukoak dira. Bestela horra errekurtsioak, inpugnazioak...

«Demokrazia» al da «ETA, matalos» oihukatzea? edo bahitzea edo ardura duten pertsonen edo bere senideen, seme-alabak barne, mehatxupean biziaraztea?

«Demokrazia» al da zerbait gertatzen denean kalera ateratzea txikizioak edonon sortzea (autobusak, kotxeak, enpresak erretzea)?

«Demokrazia» al da herri batean dauden arau minimoak ez errespetatzea: kartelak, pankartak edo pintadak edonon jarriz?

Sistema guztiak hobetu daitezke, dudarik ez dago, horretarako pertsonak gaude, baina HBren jarrera «demokratikoa» izugarritzko bildurra ematen dit. Hori etimologikoki «demokrazia» bada, nik ez dut demokrazia klase hori inola ere nahi.

**Montse Arana
EAJ-PNVko zinegotzia**

ALKATE JAUNARI

Kaixo Alkate jauna!!
Gu, Oikiako mutil gazteak gara.
Gure eskakizuna bi porteri txiki ekartzea da. Asko eskertuko nizuke eskari hori betetzea.

Doinua: Pasaiako plazatik

*Porteri pare bat guk
genuke eskertu
porteri pare hoiek
guk gustora hartu
gure eskakizuna
dago zure esku
sartuko diteun golak
zuri dedikatu*

Mila esker!!!
(ekartzen baduzu)

1996ko apirilaren 15a, astelehena

**Aitzol Oriden - Juan Legorburu
OIKIA**

**BELARDENDA
SIWA**
Esther Blanco
OSTEOPATA-MASAJISTA
Basadi 5-C behea
Tlf: 143404 - 860012

Huntza, o.k.
DISEINUA
MANTENUA
ERABERRITZEA
ZUHAITZ, ZUHAIKKA
ETA FRUITONDOEN
KIMAKETA
lorazaintza S. Jose, 8-d Tlf: 143079

Habana
auto
Mekanika eta
karrozeria
Axular ibiltokia, 14 86 00 70
Zumaia

JON MANZISIDOR

Ba, bigarren astea edo izango zen Londresen nengoela, eta metroa hartu eta Heathrowko aeroportora joan nintzen Nerearen bila. Nerea urnietako lagun bat da eta ni bezala estudiantzera zetorren Londresa Erasmus programa horren barruan, eta nola oso kargatuta etorriko zen ekipaiarekin, ba laguntzera joan nintzaion.

Londresa heltzen ziren hegaldi guztietako jendea ate nagusi batetik sartzen zen eta haren aurrean jarri nintzen ni ere zai.

Jende gehiago ere bazegoen itxaroten, batzuk paper zati batean espero zuten pertsona horren izena zeukatzen idatzita, aurpegiz ezagutzen ez zutelako edo, enpresa gizonak edo horrelakoak gehienak. Business. Nik batzuk apuntatu nituen metroko tiketaren atzean:

- Mr. Dowly
- Mr. Devald
- Mrs. Fergusson
- Bruno
- C. Wilson
- Mr. Moody, Hill & Knowness
- Mr. Herrman
- Lucy
- Mr. Staner

Halako batean azaldu zen Nerea, iepa, zer moduz, mua, mua, bi muxu, zer moduz biajia. Poltsa hartu eta metroko takilara hurbildu ginen. Han, lurrean, fotomatoiko argazki hau aurkitu nuen.



San Pankrazioak



**ZIGOR
ETXABE**

Maiatza aldean ohitura denez badator San Pankrazio auzo hontako bizilagunei emateko ilusio festa gehienak baino gehiago omen duenez balio egun hoietan auzo txikiak bizitza emango dio.

Festei gogotsu ekin behar zaie burutik kentzeko kezka umore onez ibili ohi da jendea barrez-barrezka egun hoietan Estazioa jarriaz jendez gainezka ia gustora igarotzen deun guk San Pankrazio festa



OSA
BARNIZATUAK

ZORUEN KUTXILAKETA ETA BARNIZAKETA.
PARKETA JARTZEA.

Estazioko 12 Tel.: 861412

Antonio Etxabe
Gizonezkoen erropak

Zunbillo 4
Tlf: 861407

ROSI
GARBIKETAK

- Etxeak eta dendak
- Enpresa eta auzo lanak
- Erropa garbiketa eta tintaketa

Basadi 3-A
Tlf. 861670

Piru Santo Domingora



Piru, Jon eta Axier, hondartzara joateko prest.

Txiskola programako finalera iritsi ondoren, goiko hirukoteak ezin izan zuen garaipena lortu, eta bigarren postuarekin konformatu behar izan du. Postu honi dagokion saria, ordea, ez da makala: Santo Domingorako bidaia, hain zuzen.

Bi oriotar izan ditu taldekide Xabier Dominguez "Piru"k. "Axier eta Jon Institutuan nerekin ibilitako lagunak dira eta azken orduan deitu zidaten beste batek huts egin zielako" esan digu Piruk.

Hasieran ez omen zuen joan nahi, ez zuelako bere burua hor ikusten, baina azkenean animatu zen. Berak kontatu digunez, bertara joan aurretik Txiskola ez zuen ezagutu ere egiten, "lehen egunean nerbioso nengoen, baina gero ohitzen joan naiz eta azkenerako etxean bezela sentitzen nintzen".

Jon Abaurrea izan omen da txisteak bildu eta dena antolatzen aritu dena, bera baita txistezaleena. Zerrenda bat egin zuten eta gero gustokoenak aukeratzen joan dira.

Dena bezperan prestatzen omen zuten, baina emaitzak ikusita zaila da hori sinestea, batez ere antzezpenetan lan oso politak egin dituztelako. Oriotarrekin primeran konpondu omen da Piru. Koadrilakoren batek adarra jo omen dio ijituekin sozio egiteagatik, baina beti ere txantxetan.

Programa honek izugarritzko arrakasta izan du. Hau ikusita, bi liga jokatu direnez, lau talde finalistekin TXISKOPA antolatu dute Amonnarriz eta konpainiak.

Azken saio honetan Orioko bi talde, Abadinokoa eta Usurbilgoa elkartuko dira, eta berriz ere bidaiak eta sari handiak izango dira jokoan. Animo Piru, txapelaren bila!

laburrak

Musika ikastaroak

Musika Eskolak 96-97 ikasturterako matrikulazio epea ireki du. Urtero bezela hainbat ikastaro izango dira aukeran: lengoia muskala (helduentzat ere bai) eta era guztietako musika tresnak (kitarra, trikitixa, panderoa, txistua, txalaparta, dultzaina, eta abar). Izena ekainaren 21a baino lehen eman beharko da, Ubillos Jauregian, astelehenetik ostiralera arratsaldeko 4retatik 7etara. Argibide gehiago ere han bertan emango dizkizute.

Sindikatu iritzia

Egunkarietan azaldutako oharren bidez herriko bi sindikatuk larrialdi zebitzuari buruz duten iritzia plazaratu dute. ESK-ren ustez Osakidetzaren berbanaketak herriaren benetako beharrak kontutan ez izateaz gain, irizpide ekonomiko hutsei obeditzen die. Horregatik bat egiten du arazo honen aurrean sortu den batzordearekin eta edozein ekintzatan laguntzeko prest agertu da.

LABen iritziz, berriz, Osakidetza da larrialdi zerbitzu hau bete behar duena. Etxez etxeko asistentziak okerrera egin du eta horregatik, Zumaia, Zestoa eta Getaria ingururako zerbitzu bat jartzea eskatzen dio Osakidetzari.

Auto - Konponketak

ELKAR



Estazioko kalea
20750 ZUMAIA Telefonoa: 860201

DISKO-BAR



Alai Auzotegia 2.

Udaletxea maketaz gainezka

Barrako eta Narrondoko hormako eskultura lehiaketak direla eta, udaletxeko bulegoak eta pleno aretoa maketa eta proiektuz beteta ageri dira egunotan. Sariak ez dira txantxetakoak, milioiak baitaude jokoan, eta horregatik lan ugari jaso dira.

Barrako lehiaketarako 167 lan baino gehiago aurkeztu dira, material eta itxura guztietakoak. Narrondoko ibaiertzean amaitzen ari diren espaloian kokatuko den eskultura, beriz, Julio Beobideren omenez izango da, eta 28 proiektu inguru aurkeztu dira, jokoan dauden 2 milioiak eskuratu asmoz. Epaimahaia erakunde eta talde ezberdinetako adituek osatuko dute, eta erabakia laster emango dute aditzera.



Omenaldia Algorriko labarretan



Iaz hasitako ohiturarekin jarraituz San Telmotako bigarren larunbatean Xabier Kalparsoro *Txato* eta herriko preso politikoei omenalditxo bat egin zitzaizen Algorrirako bidean dagoen oroitarriaren aurrean.

laburrak

Patxi Aristi Salamancara


Hamar hilabete Carabancheleko espetxean isolamenduan pasa ondoren, familia edota abokatuari ezer jakinarazi gabe Patxi Aristi Salamancara eraman dute. Hemen ere egun bat egin zuen isolamenduan, baina gero ziega arrunt batera eraman zuten. Euskal preso politikoak egun erdiko txapeoan daude, baldintzak hobetzeko eskatuz. Bestalde, ekainean izango du Patxik epaiketa.

MILA ILE APAINDEGIA



Ile - kosmetikan diplomatua

Foruen Enparantza, 13 - 1 Tfnoa: 861160
ZUMAIA



NIKOL-ENE

taberna

Amaiako plaza Tfnoa. 861440

Gazteen luma zorrotzak



Apirilaren 24an banatu ziren San Telmo literatur lehiaketako XIII. edizioako sariak. Elena Irureta, Aizpea Goenaga eta Loli Astoreka aktore ezagunak izan ziren Forondako aretoan sariak banatu zituztenak, euskarazko liburuak 15 urtetik beherakoentzat eta 5.000 pezetako balioa zuten txartelak adin horretatik gorakoentzat. Zorionik beroenak irabazleoi eta ea hurrengo urtean ere hain lan politak eskeintzen dizkiguzuen!

laburrak

Udal errolda

Orain hasita eta bi hilabetan zehar Zumaiaiko biztanleen udal errolda eta Etxebizitzen estatistika egingo dira. Erroldatuta egotea beharrezkoa da, besteak beste, hautesle zentsoan sartuta egoteko, ikastetxeetan matrikulatzeko eta zerbitzu publikoak erabiltzeko. Guztira 7 lagun arituko dira lan honetan eta etxebizitza guztietan orrialde batzuk utziko dituzte, behar bezela bete daitezten. Orriak jasotzeaz eta zalantzak argitzeaz ere beraiek arduratuko dira. Udaletxean ere emango dizue argibide gehiago, hala behar bazenute.

Etxebizitza berriak

Laster hasiko dira babes ofizialeko etxebizitza berriak eraikitzen, lehen daudenen ondoan. Zumaia Lantzen S.A. da lan hauek bultzatzeaz dituen eta Basusta S.Coop izango da lanak burutzeaz arduratuko dena, uda baino lehen hasita. Kooperatiba osatu eta guztira 52 etxebizitza eraikiko dira, garaje, ganbara eta guzti. Hauek eskuratzeko lehentasuna izango dute zumaiarrek, beste etxe baten jabe ez direnek, 1994an izena eman zutenek eta baldintza sozio-ekonomikoak berdinak direnean, minusbaliatasunen bat dutenek.

Izena emateko lehenbizi udaletxera joan eta orri bat bete behar da. Ondoren 60.000 pzta sartu behar dira KUTXAKo 2101-0174-11-001053429.5 kontu korrante zenbakian. Izena 52 baino lagun gehiagok emango balute,



zozketa baten bidez erabakiko litzateke etxebizitzak nori dagozkien, eta gainontzekoei aurreratutako dirua oso-oso bueltako litzaieke. Argibide gehiago nahi badituzue Zumaia Lantzen, S:A.ren 212354 telefonora dei dezakezue.

IZETA
orrastegia



Urumea 6
Tlf: 862083


IRIBAR
OKINDEGIA - KAFETEGIA
Tlf: 143361



Gosarietan prezio bereziak

Paki 
Belardenda
OSASUN NATURALA
Erribera kalea 2, Tlf: 143156 - 86 22 44

Hurrengo urtera arte!



Txupinazoaren ondoren, festa hasi da. Mahaia buruan eta ibili munduan! Kaxianoz jantzita panderua astindu, edo bonbua, nekatuz gero zerbait jango degu eta, txosnetan ez bada Erribera kalean.



ERTZ INFORMATIKA

Mendaro Martiñela 3
TEL: 14-33-95
Zure INFORMATIKako Denda

- ORDENAGAILU P.C
- INPRIMAGAILU
- CD-ROM
- KRISTALEZKO PANTAILAK
- DISKETTEK

Arkupe

Okindegia eta gosariak

Kale nagusia, 2





Bizkarra emanda bada ere, txikiek askoz hobeto jotzen dute tanborra. Ez al da hala, Agustintxo?



Postreak oso-osorik ageri dira argazkian; gero "putreek" ez zuten papurrik ere laga.



Ai, ai, ai, ai, ai! ez det erortzerik nahi!



ZUMAI A



AUTO-ESKOLA



- * Gida-baimen guztiak ateratzeko baimendua
- * Praktika eta azterketak Azpeitian
- * GURE HELBURUA: Gidari trebe eta profesionaliak egitea

Basadi, 12 behea

861018

20750 ZUMAIA



AIZPURUA


LIBRURU DEN OPARIAK

Aita-Mari Auzategia, 17
Telefonoa: 861569
20750 ZUMAIA

Goiko plazatik irten
zuen "txarangak",
diana jotzera.
Larburu, nola jotzen
da tanborra arnasik
hartu gabe?




Egitarauan azaltzen ez bazen ere,
goizaldean Strep-teasea.
Hi txo! depilatu hadi!



Etxekoandreak, erosketak
egitera irten ziren.



Mi gato hase miaaumiaumarramamaiau.



Atera mingainak. Aaaaaagggghhhh...
Saltsan jartzeko modukoak, ezta?



Amaaaaa! Hemen gaudeeee!



**OPTIKA
ZUMAIA**

Txomin Agirre Kaia, 1
20750 ZUMAIA Tel. 143057



**inportaturiko erropa
eta artisautza**

Basadi 3 Zumaia

Gero eta haur gutxiago etortzen omen zaizkigu mundura. Ez dakit Zumaia salbuespena edo zer den, baina oraindik ere nahikoa da herritik bueltatxo bat ematea zenbat zumaiar berri etorri zaizkigun konturatzeko. 3 urte bete baino lehen hasten dira eskolan, baina bitartean eta eskola orduz kanpo hauetaz arduratzeko haurtzaindegirik ez dagoenez, neska gazte eta emakumeak izaten dira askotan zeregin horretan aritzen direnak. Hauetako zenbaitekin aritu gara hizketan erreportia hau osatzeko.



Oraingoz lan honetan jarraitzeko asmoa du Amaiak.

Besteren umeak zaintzen

Erribera kalean sartu bezain laster hasi gara kotxe-kapotak ikusten. Baina egin beharreko lehen lana emakumeari haurra berea edo besteren batena den igertzea izango da. Ama gazte bat bere semearekin ikusi dugu lehenbizi, beste kasu batean zalantzan egon gara, eta azkenean Amaiarekin egin dugu topo, Eki kotxean zekarrela.

Ikasketak utzi eta berehala heldu zion Amaiak lan honi, 18 urte zituela. Eta gustora dago, oraingoz zeregin honetan jarraitzeko asmoa baitu. Umeak izugarri gustatzen zaizkio eta 3 zaintzen ditu egunean zehar, bat goizez eta beste bi arratsaldez. Egun guztia ematen du lan honetan, goizeko 8,30etan hasi eta arratsaldeko 7ak bitartean. Eta dena ez da haurra paseatzea izaten, honi bazkaria eman

eta etxeko lan batzuk ere egiten dituela kontatu digu. "Zaintzen dituzun umeak pila bat maitatzen dira, zureak izango balira bezela". Eta umeek ere maitatzen dituzte neska hauek, askotan gurasoekin baino denbora gehiago pasatzen baitute beraiekin. Horregatik izugarritzko garrantzia dute zaintzaile hauek umearen heziketan.

Argazki pare bat atera, eskerrak eman eta Amaia agurtu ondoren, Amaia plaza inguratu gara. Bertan, Mari kaleko geletan dabilzan neska-mutulen jolastordua oraintxe amaitu da. Zintzo-zintzo, elkarri eskua eman eta bidea gurtzatu ondoren eskolara abiatu dira. Plazan, ordea, taldetxo bat geratu da. Laupabost neska/emakume daude dindanen inguruan, bakoitza bere kotxe eta

haurrekin. Badirudi Amaia plaza lan honetan aritzen direnen topagune egokia dela. Petrilean eserita Miren ikusi dugu, eta berarekin ere hizketalditxo izan dugu.

Asko dira umeak zaintzeari ekin dioten emakume edadetuak

Lehengo urtean hasi zen lan honetan, eta unibertsitate ikasketak egin ondoren lanik topatzen ez zuelako hartu zuen lan hau. Argi eta garbi dauka ikasketekin zerikusia duen lanen bat aurkitu orduko hau utzi egingo duela, baina bitartean gustora dabil. Goizez bakarrik izaten du mutila bere kontu, eta honek arratsaldean beste gauza batzuk egiteko aukera

TXOKOA
T
B
E
R
N
A

Artadi
Auzoa
86 21 89

ARRAIN ETA
MARISKOAK

BARAZKIAK
ETA
MARES
AURREZ
PRESTATUTAKO
JAKIAK

7 MARES IZOZTUAK

KABI
TIBERN - ZUMAI
Tfnoa: 143379

ematen dio. Goizeko 8,30etan hasten da lanean eta biberioia eman eta aldatu ondoren, etxeko lan batzuk ere egiten ditu. Mirenek aitortu digunez umearikiko maitasun handia sortzen da, "txiki-txikitatik hartzen dezu, nola hazten dijuan ikusten dezu...". Bi urte ez ditu bete oraindik mutiltxoak, eta ondo portatzen omen da, batzutan Aitaaa eta Amaaaka hasten den arren. Onartzen du Mirenek umearen heziketan partehartze zuzena dutela, "Egune-roko ohiturak erakusten dizkiegu, besteekin nola konpondu...".

Hamar metro haruntzago Araitz topatu dugu. Berehala bera ez dela lan honetan bete-betean aritzen esan digu. Ikasten ari da oraindik, eta klaseak arratsaldez dituenek, goizetan pare bat orduz amari laguntzatxo bat ematen saiatzen da, iazko urritik. Umea amak hartu zuen, eta goiz eta arratsalde zaintzen dute. Umeak asko

gustatzen zaizkio, eta «primeran konpontzen gera bata bestearekin». Zaintzen duen umea, gainera, familiako du eta izugarri maite du hazten ikusi baitu, aurrengo hitzak esaten, ibiltzen...

Edadetuak ere bai

Asko dira, bai, haurrak zaintzeari ekin dioten emakume edadetuak. Esperientzia faltarik ez dute izaten, eta denera iristerik ez dutenean alaba edo beste norbaiten laguntza izaten dute. Era honetan, etxera soldata osagarri bat eramateko aukera izaten dute.

Paolaldera abiatu orduko, arranpla parean Anerekin egin dugu topo. Aurrekoen modura bera ere gaztea da, baina dagoeneko ia sei urte daramatza haurrak zaintzen. "Aurrekuakin 3 urte egin nitun, eta hau 10 egun zitunetik daukat". Umeak gustatzen zaizkiolako hasi zen

bera ere, eta oraingoz ez du beste ezertan aritzeko asmorik. Etxeko lan guztiak ere egiten ditu, eta egun guztia ematen du lan honetan. Asegurua badu, eta horregatik gainontzekoek baino gutxiago kobratzen du, baina ez da kexatzen, nagusiak ez direlako gain-gainean izaten. Esan digunez "batzuk oso exijenteak izaten dira, etxea garbi-garbi eduki behar izaten da beti". Umea aspertzen hasia da, eta Ane agurtuta aurrerako bidean jarraitu dugu.

Zaintzaile hauek umearen heziketan izugarrizko garrantzia dute

Eguraldi mundiala dago eta muturrera iristerako 4 gizonetzko ere ikusi ditugu, kotxeari bultzaka. Ez, hauek ez dira ari lanean, ez diru kopuru baten ordainetan behintzat. Lehenengoa biloba zaintzen ari den gizon edadetua dela iruditu zaigu; bigarrena alaba besoetan hartuta duela ikusi dugu; eta azken biak anaiak dira, ilobari paolalde berria erakusten ari direnak. Etxean haurra zaintzeko prest dagoen norbait edukita, ez dago kanpoko norbaitengana jo beharrik, itxura denez.

Egunen batean haurra zainduko dizun norbaiten beharra izango duzu, beharbada. Denak ere gaur gurekin izan ditugunak bezalakoak badira, lasai egon zaitezke, zure txikitxo konfiantzazko pertsonen esku egongo da eta.



Lehenengo urtetik hasita amari laguntzatxo bat ematen saiatzen da Araitz.

**INPERNUPE
ELKARTEA**

Erribera kalea Telefonoa: 861523
ZUMAIA

*Jesuskoa
Fatetxea*

Aplaza 86 17 39 • Urdin Zumaia

LEIZE

Juan Belmonte 6
ZUMAIA Tnoa: 860415

Ordu asko, diru gutxi

Langintza honetan ez dago ezer finkorik, eta kasu batetik bestera dena aldatzen da: ordutegia, egin beharreko lana, haur bat edo gehiago den, soldata... Batzuk haurra zaintzeaz bakarrik arduratzen dira, beste batzuk etxeko lan bat edo beste ere egiten dute, umeari bazkaria eman behar izaten diote batzuk, besteek ez...

Ez da erreza izaten lan hau behar bezela neurtzea. Aipatu digutenez, goiz eta arratsalde aritzen denak 60.000 inguru jasotzen ditu hilean, batzuk gehixeago, gutxiago ere bai beste zenbaitek. Goizez edo arratsaldez bakarrik aritzen denak, berriz, 25.000 pezetan bueltan jasotzen dute.

Zarautzen gehiago ordaintzen dute, baina hara egunero joatea ere ez da merkea

Oso gutxi dute aseguruak, eta batzuek gainera ez dute beharrezkotzat jotzen. "Nahio det segururik ez izan eta gehio kobratzia" esan digu batek. Garbi dago aseguruak dutenek gutxiago kobratzen dutela, 50.000 inguru, baina aseguruak bestelako abantailak eskeintzen ditu: kotizatu egiten da, zerbait izanez gero baja hartzeko aukera dago, eta abar.



Batzutan haur bat baino gehiago zaindu behar izaten dira.

Kontratu edo antzekorik ez da izaten gehienetan, eta haurraren gurasoen esku geratzen da ordutegiak eta lan baldintzak finkatzea. Dauzkaten baldintzekin konforme agertu dira gehienak, baina ezin dute ukatu beraien ustez gehiago kobratu beharko litzatekeela egun guztian zehar egindako lana. Ez da oso lan gogorra, eta atsegina ere gerta daiteke une batzuetan, baina astean zehar ordu piloa sartzen dira eta lotura haundia eskatzen du.

Badakigu hauei ordaintzeko dirua dena familia batetik irtetzen dela, eta ez da erraza hori baino gehiago eskeintzea, baina kasu batzutan aprobetxatu ere egiten dira neska hauen lanaz, ezer gutxi emanda lan ugari aginduz.

Ez da diru asko irabazten, baina beharra dagoenean zeozer egin behar izaten da, eta horregatik ezkonduak emakume ugari ere hor dabil umeak zaintzen, hilaren bukaeran falta izaten den apur hori etxera eramateko.

Askotan familiako baten esku uzten da umearen zaintza, iloba edo lehengusu baten esku, esate baterako, hasiera batean konfiantza gehiago eskeintzeaz gain, norbaiti diru kopuru bat ordaintzekotan nahiago izaten delako ezaguna izatea.

Hauetako neska batek aipatu digunez Zumaian baino gehiago ordaintzen dute Zarautzen, eta oraindik gehiago Donostian, baina hara joateko bidaia ere ez da merkea eta alde ederra dago kanpoan ala herrian bertan lan egin. ■

SOLOZABAL AUTOESKOLA



Gidatzeko karnet guztiak


- Klase teoriko zein praktikoak norberak nahi dituenean
- Klase teoriko ikusentzunezkoen abantailak erabilia
- Merkantziak eta bidaiariak garraiatzeko eta nazioarteko agentzietarako ziurtagiriak lortzeko ikastaroak.



P. Etxezarreta 19 - Bis Tlf/Fax: 861416

Maiaur



NOBODY KNOWS WHAT I'M THINKING





Desioa plazerra denean

Desioaren garrantzia dut gaur gai bezala, zein den hura, zertarako eta norena?

Desioa oso erabilia dugun hitza da, gehienbat plazerra denean sentitu nahi duguna, baina ez da erraza hau definitzen. Definitzeaz aparte askotan desioaren burutzea ilargia ikutzearen antzeko sentsazio bat bihurtzen da.

Zer dela eta, halako zailtasuna desioa plazerra denean bizipen hauen protagonista izateko?

Ai ene! Berrero ere azaldu zaizkigu gizarte zapaltzaile honen

gaiztakerien ondorioak. Bai, lehenik eta behin gure desioak gizarteak saltzen dituen baloreen ispilu dira, beraz inolaz ere pertsona bakoitzaren sakonean jaio eta hazitako desioak. Honen ondorio larri bat zera da, emakumeak badutela zer egina: «emakume desiatuak» izatea. Honen truke bere burua ezagutu eta maitatu gabe, desiatu duenaren esku uzten dute beraien plazerra.

Honela zioen kontu batek:

Bazen emakume bat bere baitan desioa pizturik zuena. Plazerra lortzea zen bere helburua. Hau honela, zer

geratzen zitzaion? Itxaronaldi luzea jasatea. Egunak joan egunak etorri, bere desioak han jarraitzen zuen, baina berak itxaron eta itxaron. Hori bai, itxaronaldia motxa izatearren dendetan ikusitako jantzi ederrenak erosi zituen. Zenbait festa eta jaialditan parte hartu eta zaila zegoen gauza. Halako batean gizon bat inguratu eta benetan inoiz entzun gabeko hitz ederren «entzule» bihurtu zen emakumea. Hitz hauen artean bera zela desiatzen zuen emakumea esan zion.

Hau nahikoa izan zen gau horretan elkarrekin ohean bukatzeko.

Baina badakizue gauza bat? Gizon horren plazerra eman eta jasotzeko desioa, bere gorputzaren tamaina kontutan izanik, 20 cm-tako «haragi» zati batera murriztuta zegoen.

Ondorioz, emakumeak, desiatua izanda ere, lehen bezain hutsik egoten jarraitu zuen.

Ba bai, badirudi urrutiko kontua, edota ezezaguna zaigula. Ondo aztertuz gero, bada garaia kontutan izateko plazerra gu geu garela. Beraz zertarako desiatu beste norbaitek zu desiatzea eta honela plazerraren jabe izatea? Lortzen dugun gauza bakarra, emakumeak batik-bat, gu geu garena besteen esku uztea da.

Izan gaitezen argiak eta gu garen plazerra konpartitzen has gaitezen. Bai, bai, ez da beharrezkoa besteak egitea gure desioaren gidari. Desioak sentitu eta zeureak direlarik bizi! ■

Ainhoa Iturbe



ERROTA
ERROTA
OPIL - OKINDEGIA
Juan Belmonte, 39 - Tfno. 86 23 68
Erribera, 2 - Tfno. 14 30 01
ZUMAIA

AXIER KIROLAK
Ortega y Gasset, 2
ZUMAIA
Telefonoa: 862206

ARGIA
Itzurun, 1 - Telf. 86 09 93
ZUMAIA



ANA OIARZABAL

Oena erregalua eta banketia. Kriston beteka harrapatu nun, baina bueno, ona. Koroizito batekin joan nintzen eta rizituakin gainera. Baina onena erregalua eta bazkaria.



OIHANA LOPEZ

Ondo pasa nun. Nere lehengusu eta lagunekin jolastu nuen. Soinekua asko gustatu zitzaidan. Berriz komunioa egingo banu ez nitzan kalez jantzita jungo.

Zein dira komunioari buruz dituzun oroitzapenak?



AITOR LEIZA

Bakarra, famili guztia juntatu ginala. Hortik aurrera... Oso zaharra naiz! Gainera orduan San Jose kalia bizi ginan, eta han juntatu ginan.



ARANTXA URANGA

Jostailu asko, muñeka asko eta soineko haundi bat, eta ni barruan kopeta haundi batekin.



JESUS AIZPURUA

Bi aldiz komulgatzen ginun. Bat zazpi urtekin (txikia) eta bestea hamarrekina (haundia). Ahal genun dotorienak juten ginan orduan ere, besuan lazo eta guzti.



RAIMUNDA
IPARRAGIRRE

Denbora haietan 10 anai-arreba ginan eta soineko zurixa norbaitek utzita eta bazkaixa ere etxian, baina zerbait extraordinaria. Lujorik batez, ez zegon dirurik eta. Zapata berrixak estreinatu eta muxuak ematen genituen. Baina sasoi hartan pentsatzen genun Jesus hartzen genula eta ez erregalo eta ez ezer.



LIBE
IRAUNDEGI

Orain dela 3 urte egin nun. Eleiza jun nitzen eta parre egin nun. Kantatu egin behar nun mezetan, baina ez nitzen akordatzen. Soinekoa txuria zan, kankanakin, honbrerak ere bai, tripan lazituakin eta atzian beste lazo haundi batekin.



LUIS MARI
UZKUDUN


Ia batere ez. Eleizan erdian kriston lotsa pasa nun. Zeoze irakurri nun, pusketa bat, baina ez naiz gogoratzen. Galtza motz horiak eraman nitun belaunetaraino, eta alkandora txuria.



TABERNA

Juan Belmonte 5 Tlf: 86 10 57

JUARISTI JATETXEA



- Arrainak eta haragiak aukeran
- Eguneko menua
- Jangela klimatizatua

Basadi auzategia, 10 Tlf: 861853

"Handien" partidu guztietan hor ikusiko degu Aita-Marin marruak egiten. "Hasi dek orain ere, ez dek ixiltzen, earra ematek dik". Zenbat aldiz entzun ote degu Miren dela-ta horrelakoak esaten. Hala ere, egia dena da, partiduro hor

**Miren
"Torreberri"**

dabilela animatuz, nahiz ta batzuei grazi haundirik ez egin. Baina berak esan digun bezela, "ixilik egoten banaiz, animatzeko eskatzen didate". Berarekin egon gara; ah, eta portzierto, Miren Mendez du izena.

20 urte futbol taldea animatzen

MIREN, ZERGATIK EGITEN DITUZU HAINBESTE MARRU ZUMAIKOREN PARTIDUETAN?

Neri gustatzen zaitelako Zumaiko ekipua, tiratzen ditelako, animatzia gustatzen zaitelako. Arbitruei ere gauzak gaizki egiten badituzte, haiei ere marru haundiak egiten dizkiet.

NOIZTIK JUATEN ZERA PARTIDUAK IKUSTERA?

Zumaiko talde bezela sortu zanetik, 20 urte gutxi gorabehera. Hasieratik nere ilobak ekipuan sartu zian, eta horregatik partidu guztiak ikusten nitun; eta beti gainera orain bezela animatuz.

"Gaztetan Madridera palaz jokatzera juteko aukera izan nuan, baina ez zegon dirurik"

ZUMAIKO ALDE BATERA UTZITA, BESTE TALDEREN BATEKOA ERE BA AL ZERA?

Bai, Realekoa, baina Athletic ere bueno, bueno. Anaia Athleticekoa dakat eta bera amorratzeagatik hola ibiltzen naiz, pixkat xaxatzen.



Futbolzale amorratua da Miren.

INOIZ IZAN AL DEZU ARAZORIK NORBAITEKIN HORRELA ANIMATZEAGATIK?

Ez, normalian ez, baina Llavorikin bai (entrenatzaile izandakoa). Nik esaten nion "Llavori, ¡saca los buenos!" eta berak "Sí, ¡a tí te voy a sacar!". Baina horrelakoak kenduta ez det problema gehiegi euki.

ZUMAIAN IKUSI DEZUN JOKALARI HOBERENA?

Jon Imanol Eleizgarai mutrikuarra. Harek esaten zian

kornerra ateratzera zijuanean, "Aizu Miren, ixo pixkat, eh?", eta nik " aber ba, zeoze iten deken mutil!". Kategori haundiko jugadoriak egon dira: Gonzalo, Nolaskoain....

ENTRENATZAILE BAT?

Azkoitiarra, Juanjo Agirrezabalaga. Neretzat onena, eta anaia bezela neukana. Oso ixila, gogorra, bullik gabe mutilak terzera sartu zitun.

BATZUEK DIOTE ASKO ANIMATZEN DEZULA; BESTE BATZUEK JOKALARIK NERBIOSO JARTZEN DITUZULA...

Ez dakit, ez leke nerbiooso jarri bihar, nik animatu egiten ditut. Baten batek jugada itxusi bat egiten badu, marrua egiten diot, baina intentzio txarrik gabe, barrutik ertetzen dit. Ixilik ikusten banabe, berriz, danak galdezka: " ze, buruko mina al dakan?, ondoezik al hagon?". Eta orduan marruka hasten naizenian danak espabilatzen dira.

ZER EGINGO ZENUKE ZUMAIKOKO ENTRENATZAILE BAZINA?

Jugadoriak hartuko nituzke goxo, beraiekin batera jokatu, ondo erakutsi. Eta ez marrua eta ez zarata. Oraingo



Azkue Autoak

Estazioko kalea, 19 Telefonoa: 861433
20750 ZUMAIA Fax: 861067

**MAITE
ILEAPAINDEGIA**

Berezitasuna ileen
sendabidean

Amaiako plaza z/g Tif: 143278



Loitz

- Eskola eta Bulegoko Materiala
- Fotokopiak
- Enkuadernazioak
- Plastifikazioak
- Fax Publikoa
- Aldizkari eta Opariak

Erribera Kalea, 4
Telf.-Fax: 14 34 22
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)

entrenadoriak ez dira beraiekin egoten. Nik beraiekin batera egingo nuke dana, saltaka ere bai, motibatu mutilak.

ZER ALDATU DA ZUMAIKON HOGEI URTE HAUTAN?

Lehendik asko aldatu da, gogo gutxixoa dago. Lehen sikiera "Hau irabazi egin bihar diagu!" eta gogo gehixoa zegoen. Pena ematen du, ez dagolako jugadoreik lehen bezela, eta nik esaten diot presidentiari "Herrian ez badago ekarri egin biharko da kanpotik laguntza bezela". Dana herrikuakin egin nahi da, baina kanpotik 2 edo 3 ekartzea komeni da, bestiai erakusteko. Okerrena da direktibak ez dula opiniorik eskatzen, "ni txitxa ni, limoná", hor fallo haundia dago. Urteko kuota eskatu eta kitto. Azkenian ni presentatu biharko naiz presidente (parrez).

ZUMAIKOREKIN JASO DEZUN POZIK HAUNDIENA?

Honbreeeee! Terzera igo zianian, ilobak gola sartu zuanian. Hiru egunian egon nitzan gaixorik: saltoka, brinkoka eta txanpaina eraten, hiru egun. Hiru egun egon nitzan gaixorik, diarrak eta marruak eta eztarria itxita. Orduko bandera gorri bat gordeta dakat gainera, "Aupa Zumaiako" jartzen duana.

ETA MOMENTURIK TRISTEENA?

Bajatu ginanian terzeratik. Konformidadia hartuta ginun jeitsiko ginala, baina oso momentu tristiak izan zian.

NORI EGIN DIOZU MARRURIK GEHIEN?

Nere iloba Joakini, eta nola da beste hori... Madina!, horri ere asko. Esaten nion "Benga, moitu hadi

astaporete!", eta ez zitzakon gustatzen hori esatia. Aldamenian, gainera, bere gurasuak izaten nitun eta hauek ikusten nitunian beste ixkina batera jun biharka nekan. "Ein zak saltaka, edo zoeze ein zak!" esaten nion. Gonzalori ere marru asko egiten nizkion, eta bere amak esaten zian "Jo Miren, sólo le chillas a mi hijo, y a tu sobrino nada".

"Zumaiako lehendik asko aldatu da, orain gogo gutxixoa dago, eta ez dago lehen bezelako jugadoreik"

GAIA ALDATUZ, GAZTE DENBORAN PELOTAN ERE ASKO IBILITAKO ZERA, EZTA?

6 urtetik aurrera eskola jun aurretikan trapuzko pelota batekin ibiltzen ginan frontoian, etxe aurrrian.

Mutlekin ibiltzen nitzan, neskarik inun ere ez zan azaltzen. Baina halako batian eskua handitzen hasi eta estaka batekin palak eiten hasi ginan. Narruzko pelotakin palaz jokatzen hasi ginan, duro bat apostatzen eta horrela. Halako batian Sebastian Ulaziak ikusi eta Teodoro Azkuekin Tolosara eraman ninuten, hango neska batzuen kontra jokatu bihar nula-ta. Nik indar haundia nekan eta hasi ta segituan neska bati begionduan eman nion pelotakin, atzera erori zan, eta partidua suspendituta geratu zan. Hurrenguan bueltatu nitzanian jokatzerara, ez zian presentatu.

HORRETAN SERIO ARITZEKO AUKERARIK IZAN AL ZENUEN?

Bai. Orduan esan ziaten, "Aizu, zuk Madridera etorri bihar dezu. Han ederki ibiliko zera, zure kategoriko jendiakin". Baina horretarako dirua bihar zan, eta hemen ezer ematen ez ziatenez ez nitzan jun. ■



Zumaiakok eman zizkion pozak atzean geratu dira. Noizko preferente mailara?

JOSEBA OSA
- ITZULPENAK -
 EUSKARA-GAZTELERA-
 KATALANA-INGELES-
 FRANTSESA

Tel / fax: 148065

ekin
 ELEKTRIZITATEA

ISTALAZIO ELEKTRIKOAK
 ISTALAZIO MUSIKALAK
 AKUMULADOREAK
 ALARMAK
 ANTENAK
 PORTERO AUTOMATIKOAK

DENDA: K. Nagusia, 8 - Telf. - Fax: 14 30 97
 TAILERRA: Larretxo, 10 behe 1º - Telf. 14 34 74
 20750 Z U M A I A (Gipuzkoa)

S

SUKALDEKO
 ALTZARIAK

DORNUTEGI
 ARMAIRU ENPOTRATUAK

Basadi Auzategia, 10 behe
 Telefonoa: 862051

20750 ZUMAI
 (Gipuzkoa)

Aerobic, etenik gabeko dantza

Amaia Olasagastirekin hitz egiteko aukera izan dugu.

Bera da aerobic-eko irakaslea, hasiera nolakoa izan zen kontatu eta kirol honi buruzko xehetasunak eman dizkigu.

Hasiera batean Zumaian «gym jazz» ematen zen M^a Pazekin. Amaia berarekin hasi zen Zarautzen eta han harrera ona izan zuenez, Zumaian bere kabuz negozioa jartzea erabaki zuen, bizitza aurrera ateratzeko.

Amaia titulurik gabe hasi zen klaseak ematen, baina horrek zekartzan mugak haundiak zirenez, Hernanin atera zuen, 8-9 hilabeteren buruan. Dagoeneko 2 urte daramatza Zumaian monitora gisa.

Zumaian harrera ona izan du aerobic-ak. 15-30 urte bitarteko neskak joaten dira gehienbat, eta denak emakumezkoak dira, bat izan ezik. Badirudi mutilak ez direla era honetako kiroletan parte hartzera ausartzen. Hala ere psikomotrizitate aldetik, Amaiak dioenez, mutilentzat ez da horren erreza.

Klaseei dagokienez, egun batean bai, bestean ez, goizez bi ordu eta arratsaldean beste bi ordu ematen ditu. Astean, beraz, 3 ordu izaten dira eta hilabetan 4.000 pezeta ordaintzen dira.



Jendeak uste duena baino gogor eta nekagarriagoa da Aerobic-a.

Amaiak komentatu digunez edozeinek praktika dezake, ez da gaitasun berezirik behar honetarako. Normalean “disko” musika erabiltzen dute, eta zenbaitetan funkya ere bai, baina honetan erritmoa jarraitzea zailagoa izaten da.

Erropari dagokionez, garrantzitsuena zapatilek aire kamara izatea da, salto ugari egiten direnez zapatila hauek belaur eta bizkarrezurra amortiguatzen dituztelako.

Nahiz eta honen inguruan marketing haundia egon, kamiseta eta kuloteak nahikoak dira. Erropa pegatuarekin hobeto ikusten dira mugimenduak.

Klaseko orduetan lehenik beti beroketak egiten dira. Astean behin hankak lantzen dituzte kajekin. Aerobic klase klasikoa ematen denean koreografi sinpleak egiten dira. Beste batzuetan berriz, zirkuitoak eta pesak egiten dira. Hala ere, esan beharra dago hauetaz aparte beste ariketa mota asko egiten direla. Asteko hiru klaseak ezberdinak izaten dira.

Jendearen lehen helburua soberan dauden kilotxo horiek galtzea da, baina azkenean konturatzen dira eguneko stressa kentzeko egokia dela, baita norberaren buruarekin hobeto sentitzeko. Eta noski, fisikoki lirainago egoteko ere balio du. ■

goofy
HAUR JANTZIAK
Amaiko plaza, z/g
Telef. 860959
ZUMAIA

agustin
HARATEGIA
URDAITEGIA
Itzurun Zuhaitz-bidea, 1
20750 ZUMAIA Telefonoa: 862430

julo curiel
PELUJERO
G
GIZONEZKOENTZAT
ILE-APAINDEGIA
Erribera kalea 23

Neska arraunlariak bikain



Hemendik aurrera ondo merezitako deskantsua hartzeko aukera izango dute neskek.

Euskadiko txapelketan jubenil mailan bigarren postua eskuratu ondoren, Aita Mari taldeko neskek Avilesen (Asturias) jokaturako Espainiako txapelketara joateko txartela lortu zuten.

Han, ordea, maila haundiko jendea bildu zen; gainera, jubenil eta senior mailakoek denak batera korritu zuten, ez zuten finalera sartzerik izan. Dena dela, kontsolamenduko txanda irabaztea lortu zuten, eta horrela denboraldiari amaiera polita eman zioten zumaierrek.

Mutiletan jubenil eta kadeteak ere ederki ibili dira, lehenengoak batez ere; Gipuzkoako txapelketan bigarren geratu ziren, baina Euskadikoan zorte txarra izan zuten, beraiena ez zen batel batekin irten beharra izan baitzuten, istripu baten ondorioz.

Denak ere, orain, banku mugikorrek denboraldian sartuko dira betebetan. San Pedroak bitartean arituko dira espezialitate honetan, eta ordura bitartean, jubenilak batez ere, lan oso txukuna egiteko itxaropenez agertu dira.

izerdi tantak

Orain Trainerilak

Batelen denboraldia amaitu ondoren, trainerilena iritsi da. San Telmotan bertan izan genuen estropada bat eta oriotarrak nagusitu ziren orduan, zarautarren eta getariarren aurretik. Aita Mari taldekoak bostgarren postuan sailkatu ziren. Estropada hau, ordea, ez zen ligan sartzen.

Denboraldi "ofiziala" Orion hasi zen, eta hemen ere bertakoak izan ziren nagusi. Bigarren estropada Zumaian jokatu zen hilaren 4an, 36 unti aritu ziren lehian, eta hondarribitarrak nagusitu ziren. Zumaianren lehen trainerila 13. postuan sartu zen.

Aita Marik bi untzikin parte hartzen du, senior mailakoak biak ere. Traineruen denboraldirako prestaketa gisa ondo etoriiko zaie traineriletan horrela aritzea. Ea aurten traineru berriarekin emaitza politak lortzeko aukera dagoen.

ENARA, S.L.
INPRIMATEGIA



Amaia Plaza 15
Tlf: 862458



BASADI-TURTEGUA, 4-A
ZUMAI
TEL. 862081

HARRATEGIT
URDATEGIT



ENTER
INFORMATICA

Baltasar Etxabe kalea z/g
Tlf: 861175 - Faxes: 860550



Basadi Auzategia, 10-A atzean Telefonoa: 862228 ZUMAIA

xirula



ARGAZKI ETA BIDEO
ERREPORTAIK
ERREBELATZEAK
KAMARAK
MUSIKA

TELEBISTA
BIDEO
HI-FI

Erribera kalea, z/g
Tel. 861705

20750 ZUMAIA



Aurtengoan bai, azkenean lortu du **Xemetaxio** taldeak plaieroetako lehen postua eskuratzea. Lehengo urtean denboraldi bikaina egin ondoren lehen kanporaketa ez zuten gainditu. Aurten alderantziz gertatu da, ligan zehar ez dira hain fin ibili, baina azken partiduetan beraiek izan dira indartsuenak.

Finalean aurrez aurre txapelketako talde sorpresa izan zuten, **Kabi taberna**. Finalerdietan azpeitiarrak ondo kanporatu zituzten, baina finalean ezin izan zieten xemetaxiotarrei aurre egin, eta 2-0 galdu zuten.

Xemetaxio txapeldun



Txapeldunak, jarraitzaile eta guzti.

Bestalde, **Buitraker** nagusitu zen Kopako finalean, **Ipurbeltz** zestoarren aurkako partidua 5-4 irabazi ondoren.

Bi txapeldunek ere, San Telmoen aitzakian ederki ospatu zituzten garaipen hauek.

Zalla Erretegia, azpitzapeldun Zarautzen



Jende asko izan zen Zarautzen oilaskoei animatzen.

Bigarren urtez jarraian "oilaskoek" paper bikaina burutu dute Zarautzeko plaieroetan. Iaz final erdietara iritsi ondoren, aurtengo edizioan final handian penaltietan galtzaile izan dira.

Tximerruak Azpeitiko taldea gertatu da txapeldun. Hau gutxienezkoa da ordea; **Zalla** taldeak eskerrak eman nahi die San Telmotako festetan animatzera hurbildu ziren guztiei..

Humorerik ez zuten galdu behintzat. Ondoren penak ahazteko, herrian izugarrizko eskandaloa montatu baitzuten Zallako gizontxoek.

Ur-gintza SL

SANEAMENDUA - KALEFAKZIOA - GAS INSTAKUNTZAK
GAS NATURALA - INPERMEABILIZATZEAK
ERAIKUNTZA LANAK - BAINUAK
SUKALDEKO ALTZARIAK

Iraeta auzoa, z/g Tel: 148082
78 Posta kutxa Fax: 148081
20740 IRAETA - ZESTOA

KALARI TABERNA JATE TXEA

- * Eguneko menua
- * Plater konbinatuak
- * Kaxuelak - Otartekoak

Erribera, 16 Tfnoa: 860660 ZUMAIA



Pala txapelketa 2. fasean

Pala txapelketa honen 1. faseari amaiera eman zaio eta berehala bigarrenari ekingo diote.

Orain artean giro polita egon da, eta talde batzuetan, gainera, oreka handia egon da, azken partiduan erabaki baita lehen postuak norentzat ziren. Beheko taulan ikusten denez bigarren faserako taldeak ere egin dira, baina oraindik ere bi partidu jokatu beharko dira, falta diren 4

bikoteak talde batean ala bestean kokatzeko. **Irureta-Carballo** eta **Arteche-Azkue** partiduan irabazten duena San Pedro sariko A taldean sartuko da eta galtzailea San Pedrinekoan. **Alkorta-Urbieta** eta **Salegi-Egaña** partiduko irabazleak, berriz, San Pedro saria jokatuko du (B taldean) eta besteak San Pedrin saria. Partiduak orain artean bezala ostiral iluntzetan eta igande goizetan jokatuko dira.



Gorostola oso indartsu dabil aurten ere.

A taldea

Gorostola - Aizpurua
Careaga - Mancisidor
Garikano - Astorkia
Iztueta - Markos
?



B taldea

Unanue - Arratibel
Unanue - Unanue
Zuazobide - Aguirre
Uranga anaiak
?

A taldea

Bilbao - Otaño
Amilibia - Alberdi
Lopez - Lopez
Alberto - Josu
Buenetxea - Grela
?



B taldea

Atxurra - Eizagirre
Javi Alvaro - Ruiz
Elustondo II - Odon
Iraola - Iraola
?

izerdi tantak

Triatloia ekainean

Iaz Zumaia-Azkoitia I. triatloia irailean jokatu bazen ere, aurten lasterketa hau ekainera pasatzea erabaki dute antolatzaileek.

Ekaineko hirugarren larunbatean izango da, 15ean hain zuzen ere. Iaz bezala, 1,5 km egingo beharko dira igerian, 38 bizikletan eta 10 korrika.

Proba honetan parte hartu nahi duenak lehenbailehen hasi beharko du prestaketa lanekin, esfortzu handia eskatzen baitu. Hurrengo zenbakian xehetasun gehiago emango dizkizuegu.

AZKUE

Taberna-Jatetxea

- Jantokia zabalik
- Eguneko menua eta Karta
- Oheak
- Bataioak eta Jaunartzeak

Basadi 9

Tel.: 861780

ILE APAINDEGIA

Merca
Uranga

Etsezarreta, 19
Telefona: 862342

20750 ZUMAIA

ONCE

**JOXE
MANUEL**

Orain astelehenetik
ostegunera
KUPOI 150 pzta
BERRIAK!!



**JUSTA
TABERNA**
**EGUNEROKO
BAZKARIAK**

Erribera kalea 20

Itsaspeko III. zinema zikloa

Donostiako zikloarekin elkarlanean, aurrean hirugarren urtez zenbait pelikula ekarriko dira gure herrira. Maiatzeko 3 ostegun aukeratu dira horretarako eta Zumaiako Natur Taldearen gain daude antolaketa lanak, eratu berri den buzeatzaile taldearen laguntzarekin. Zumaiako Udalaren babesa ere izango dute saio hauek.

Maiatzak 9 osteguna

Caribe itsasoko bitxiak (52')

National Geographic-erako egina. Izurdeak, meruak, marrazoak, otarrainak, baleak, etab. Marmoken mundua eta Caribe itsasoko korale uharrietako bizimodua.

El Hierro (26')

"Canarias bajo el mar" sailekoa. La Restinga eta Roques Salmor-eko uretan murgildurik. Korale beltzak. Era ezberdinetako morenak.



Maiatzak 16 osteguna

Sexua uharrietan

Bizitza sexuala uharrietan. Korale uharrietako espezie ugariaren iharduera nolakoa den. Ur haietako era guztietako bizidun ugari.

Benidorm irla

Benidorm-en jaiotza. Bertako itsasoko nahiz lehorreko bizitza. Arrantzaleen arazoak. Fauna aberatsa.

Emanaldi guztiak Aita Mari zineman izango dira, gaueko 10etan, eta sarrera 150 pezetakoa izango da. Itsasoa eta bere ingurua gustoko badituzu, ezin duzu huts egin, beraz. Bestalde, haur eta gaztetxoentzat emanaldi bereziak eskeiniko dituzte, Foronda kultur etxean, eta baliteke gai honi buruzko hitzaldiren bat ere egotea.

Maiatzak 23 osteguna

Tierra de Cabos

Madeira ezezaguna

Madeira irla eta bertako ur epeletako bizitza: meruak, bestelako arrainak....

Quemakumque

Gonawinduan kokatutako Tairona herriak itsasoarekiko ametsa du, eta zorientsuago izango da beren itsas zati txikia esku-ratuta.



ILANO
LIBURUDENDA

Paperdenda
Prensa
Aldizkariak
Fotokopiak
Enkuadernazioak
Liburuak

Baltasar Etxabe 7
Tlf: 14 31 91



ZURICH

ASEGURUAK

Bonifazio Etxegarai, 1
Tel. Faxes. 860169

Alberdi

GIZONEZKOEN MODA



Erribera kalea 6
Tlf: 861155



BASUSTA
ERRETEGIA

Pantxita Etxezarreta, 25
Telefonoa: 862073

20750 ZUMAIA

ZALLA

Taberna - Erreteria
PLATER KONBINATUAK
OTARTEKOAK

OILASKO ERREAK
San Pedro, 4 - Zumaiak Tlf: 862387

Galdona



burdindegia

Mendaro mariñela, 1 20750
Juan Belmonte, 15 ZUMAIA
Tlf: 86 11 17 / 14 33 46
Fax: 861330 (Gipuzkoa)



Ernesto izatearen garrantzia

Antzerkia



MASKARADA taldearen eskutik.
Maiatzak 10
gaueko 10,30etan
Aita Marin
Sarrera:
500 pezeta

Maiatzaren 25ean,
larunbatean, iluntzeko
8,45etan Parrokian,
Donostiako goi mailako
kontserbatorioko
ORKESTA TXIKIAREN
kontzertua, Asun
Azurmendi zumaiarra
bakarlari gisa arituko
delarik. Sarrera dohan.

Musika

28 eta 29an; Aita
Mari zineman, Udal
Musika
Patronatuaren
babesean, Musika
Eskolako ikasleen
ikastaro amaierako
kontzertuak

Erakusketa

Maiatzaren 10etik
25era, LUIS
QUINTANAL
kubatarraren
ARGAZKI
ERAKUSKETA,
Foronda kultur etxean:
"La Habana 90eko
hamarkadan"



San Pankrazioak Estazioan



Maiatzak 24 ostirala

Gaueko 11,30etan DANTZALDIA
Trabuko taldearekin.

.....

Maiatzak 25 larunbata

Eguerdiko 12etan TXUPINAZOA
eta goxoki banaketa.

Arratsaldeko 4etan MUS
TXAPELKETA.

5,30etan haurrentzako JOLASAK.
7,30etan TXOKOLATE jana.

Gaueko 11,30etan DANTZALDIA
Luhartz taldearekin.

Atsedendian karaokea.

.....

Maiatzak 26 igandea

Goizeko 11etan MEZA.

Eguerdiko 12,15etan TRIKITIXA
eta Santa Klarako astoaren eta
auzoko Valentin Eizagirrenen
zaldiaren arteko HARRI PROBA.

ONDO PASA!



Zerbitzu Ofiziala

ZUMAIA AUTOAK

Juan Belmonte, 45
ZUMAIA

Telefonoa: 861485
Fax: 143143

EGUZKI
PUB
KONTEL
BEREZIAK
Basadi Auzategia
9-A 2-B
ZUMAIA

ITSASKI
supermerkatua



Urumea kalea z/g
Zumaia




Sentido y sensibilidad (1995)

ZUZ.: Ang Lee
AKT.: Emma Thomson, Alan Rickman.

Emma Thomson eta Kate Winslet ahizpak dira, eta saiatu arren ezin dute ongi ezkondu. Honen errua aitak du, hiltzean ez baitzien inongo diru, lur edo etxerik utzi. Hasiera batean pelikula honek duela 200 urte Ingalaterran gertatutako amodio istorio xume bat dela badirudi ere, sakonean diruak ezkontzeko duen garrantzia erakusten digu.

Filme honen zuzendaria Ang Lee taiwandarra dugu. Honen aurreko filmeak ("El banquete de boda", "Comer, beber, amar", etab) Taiwaneko gaur egungo familia erlazioei buruz baziren, orain Jane Austenek idatzitako liburu bat pantailaratu eta horrela, epokako pelikula bat zuzentzeari ekin dio. Hala ere, ez zaio beste zuzendari batzuen lanetan bezala jantzi eta dekorazioari hainbeste garrantzi ematen, pertsona arteko erlazioek dute lehentasuna. Aipagarria da, azkenik, gidoilaria Emma Thomson bera dugula, eta lan honegatik gidoi onenaren Oscar saria jaso duela.

Zine kritikak	EGIN	DV	Egunkaria
Sentido y sensibilidad Zuz: Ang Lee	★★★★	★★★★	★★
Mary Reilly Zuz: Stephen Frears	—	★★ 1/2	★★
Heat Zuz: Michael Mann	★★★★	★★★★	—



- Zure haragi bereko
- Zu (t) gabe
- Txirike-parú
- Altzeta
- Rasa eta inguruak
- Jorge de Oteiza, artea eta pentsamendua

- Urrutiko intxaurrak
- Itsasargiko misterioa
- Aintzirako ahotsak

IRAKURKETARAKO AUKERAK

Hemen dezue Udal Liburutegian aurki ditzakezuen liburu berri eta interesgarrien aukeraketa bat. Dasta eta gozatu dezazue ahal dezun neurrian

Euskaraz

- Patxi Ezkiaga
- Aizpea Goenaga
- Sabin Irizar
- Karlos Linazasoro
- Orixol NIBE
- Andoni Alonso

Gaztetxoentzat

- Manu Lopez
- Xabier Galarreta
- Xan Lopez

Gaztelera

- Mary Lou y la vida comoda
- Benarés
- Hampstead
- La impudicia
- Modelos de mujer
- Madama Sui
- Un combate y otros relatos
- La Isla contada
- Ultimas noticias
- Cinco días en París
- Jose Luis Sampedro: la escritura necesaria



- Fernando Benzo
- Alvaro Bermejo
- Elías Canetti
- Marguerite Durás
- Almudena Grandes
- Augusto Roa Bastos
- Patrick Süskind
- F. López Sacha
- Arthur Hailey
- Danielle Steel
- Gloria Palacios

KOSTA GAS



GAS ETA
KALEFAZIO
INSTALAZIOAK

Etkezarreta, 6 • Tfnoa 86 10 78 • 20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)

expert
ELEKTROGAILUAK

Mertxe Aizpurua
expert eta
Repsol-Butanoren
Banatzaile Ofiziala

GURE TXOKOA
TABERNA

Kaxuelita eta pintxo
ezberdinak

San Pedro kalea Zumaia

Xabier Montoia,

Beti oporretan

Pasa den urtean, 1995ean, Xabier Montoiak bere bakarkako lehen diska atera zuen. Diskaren izena "Beti oporretan" da eta Esan Ozenki disketxeak argitaratu du, bai, Negu Gorriaken disketxeak. Hau dena esan beharra dago, zeren pertsonaia honek euskal musikan izan duen garrantzia ikusita, pena ematen du horretaz inor gutxi ohartu dela konturatzeak.

Montoia, bakarkako lanean hasi aurretik, bi talde ezagunetatik pasa da: Hertzainak eta M-ak. Hertzainak taldeko sortzaile eta, Gari sartu aurretik, lehen kantaria izan zen. Ondoren, talde gasteiztarra utzi ondoren, M-ak taldea sortu zuen Kaki Arkarazorekin batera. Beldurrik gabe, esan liteke M-ak euskal rockeko talde garrantzitsuenetakoa izan dela: Negu Gorriak, Bap!, Deabruak Teilatuetan eta beste hainbat taldek talde honekiko zor handia dute.

Montoiak eta Arkarazok, rock radikalarekin bizi zen herri batean musika berri ugari sartu zituzten: funk, hardcore, rap, etab. Hemen ezezagunak ziren hainbat mugimendu ekarri zituzten; berritasunaren aitzindariak izan ziren, ausartak, ez zuten beldurrik izan. Bost diska atera ondoren ("Barkatu ama" maixu lana barne), ixiltasuna. Kakik, Fermin eta Iñigo Muguruzarekin batera Negu Gorriak sortu zuen, baina hori beste histori bat da.


1990etik orain dela urte pare bat arte ez zen Montoiaren berririk, musika aldetik behintzat; liburu batzuk atera zituen "Emakume biboteduna", "Non dago Stalin?", etab. Tarte horretan M-ak taldearen izena goraiatzan hasi

zende jende bat: euskal talde askok gogokoenen artean sartzen zuten talde hau. Gainera "Rock de Lux" musika aldizkariak "Barkatu ama" 80ko hamarkadako diskarik onenetakoen artean sartu zuen.

Ixiltasun hau orain dela bi urte bukatu zen, Moraukin batera kontzertu batzuk ematen hasi zenean. Kontzertu horietako bat entzuteko aukera izan genuen Oxforden, eta oso kontzertu ona izan

ez bazen ere, batzuk oso gustora jarri ginen, Xabier Montoiaren betaurrekoak berriz ikusita.

Esan bezala 1995ean "Beti oporretan" diska atera zuen. Bertan 15 kanta aurki daitezke, eta bere bizitza guztian gertatu den bezala, euskal musikan gertatzen denarekin zerikusit gutxi duen musika dakar, onerako, noski: pop, funk, erritmo beroak... Euskal heavya eta musika gogorra entzuten den herri batean, ezberdintasuna sartzen saiatzen den pertsona baten lana da "Beti oporretan". Animo, entzun ezazu. Ez dugu uste damutuko zarenik.. ■



Siberian oporretan izan ondoren bueltatu da Montoia.

IHINTZA
taberna

Tlf: 860472
Ortega y Gasset, 3

TXALAPARTA
O P A R I A K

Angeles Sorazu, 2
20750 ZUMAIA
(Gipuzkoa)

Telf. 14 30 85
Fax. 43 06 37

JE MAR

LOREDE NDA

LANDAREAK
LOREAK
HAZIAK
ZERAMIKAK

1 Telefonoa: 860375
20750 ZUMAIA

ITALIAR KANPOSANTOA ZUMAIAN

Guda zibilean Nazionalen tropari laguntzeko asmotan Mussoliniren soldaduek GRAN HOTEL AMAYAN koartel generala kokatu zuten.

Gudan eroritako "heroe" faxistak elkarrekin lurperatzeko asmotan Italiar Hilerria zabaltzea bururatu zitzairen. Zumaiako agintari leialak bando baten bidez herritar guztiak hilerriaren inaugurazio ospakizunetara "gonbidatu" zituzten (gonbidapen hitzak garai honetan derrigorrez esan nahi du).

Halaxe, herri osoa, haurrak, agureak, zakur, asto eta guzti, zintzo eta ixilik, bando erakargarriaren poderioz Patxi tabernaren aurrean azaldu ziren.

Han ziren noski, italiar eta zumaiar buruzagiak ere, urrezko hortzen distira estali ezinean. Txanpon, gurutze eta apaingarri ugariz hornitutako italiar burua hitzalditxoa emateko prest zegoenean, guztien belarrietara motor hotsa iritsi zen. Beso zuzen batek Izarraitz aldera dantzatzen zuen lekuan, hiru abioien itzala antzematen zen.

Ospakizunaren ondorengo inork ez du zehatz-mehatz ezagutzen, premiaren arabera, ahalik eta azkarren babesleku bila joateko jarrera hartu baitzuten denek, heroeak barne.

Kontua da abioiek itsasora iritsi orduko Bizkai aldera jo zutela gorrien lurraldeak sunsitzeko asmotan. Zumaiako kaleetan, kanposantuko ixiltasunaren eztanda besterik ez zen erori, (irribarre batzuk salbu).


Kontu-kontari



*Motxian
hi!*

Nor: Rosario Ansola
Nola: Txaro

- BIZITZEKO EL GOIBAR ALA ZUMAIA?
- BIZITZEKO, ZUMAIA.
- ZEIN DA ZALLAKO TORTILEN SEKRETUA?
- EZ DAGO SEKRETURIK. MAITASUNEZ EGITEA BAKARRIK.
- ZENBAT PINTXO TORTILA BAKOITZETIK?
- ZAZPI.
- ZE PERTSONA EZAGUNI PRESTATUKO ZENIOKE TORTILA EDER BAT?
- JAVIER IRURETA, REALEKO ENTRENATZAILEARI.
- MUSA EDO POKERRA?
- NIK NAHIAGO DET ESKOBAN JOKATZEA, DENBORAPASAN.
- ZERGATIK ETORTZEN DIRA GAZTETXOENAK BETI ZALLARA?
- ETXEAN BEZELA SENTITZEN DIRELAKO. HALA DIOTE BEHINTZAT.
- AMONA IZATEA GUSTATUKO AL LITZAIZUKE?
- NOSKI BAIETZ!
- NORA BIDAIA TUKO ZENUKE?
- AHAL BANU KARIBEKO IRLA BATERA JOANGO NINTZATEKE.
- BETETZEKO DUZUN AMETS BAT?
- OSO ZORIONTSU NAIZ. USTE DUT DENAK BETE DITUDALA.
- GAZTEOK ESATEN DUTEN BEZAIN GAIZTOAK AL GARA?
- EZTA PENTSATU ERE. LEHENGO GAZTEAK BAINO ASKOZ JATORRAGOAK ZARETE.
- URTEKO SASOIRIK EDERRENA?
- UDABERRIA.



CARLIN
OFIMARKET

FOTOKOPIAK ETA ENKOADERNAZIOAK.
PAPERA ETA BULEGORAKO MATERIALA
ORDENAGAILU ETA INPRESOREN
OSAGARRIAK

Kale Nagusia 3 Tel./Faxa: 143453



**ALBAITARITZA
KLINIKA**

DIEGO SAN SEBASTIAN BARANDIARAN
IRAKI GARMENDIA MENDIZABAL
- ALBAITARIAK -

Basadi, 7 behea
20750 ZUMAIA
Tel. 143310

LARRIALDIK
· 24 orduetan
· Zeure etxean
· Telef. 900-292928
Abonatu zbkia: 247790

BIZKOR
FOTOKOPIAK



-Enkuadernaketak
-Plastifikatzeak
-Fax publikoa
-Bulegoko materiala

Basadi 1-1, behea - Tf: 145120

OHARRAK

San Telmoetan urrezko medaila bat aurkitu det kalean, "Aitziber 76-9-25" jartzen duena. Galdu duenak 862213 telefonora dei dezake (Kristina).

Apirilaren 27an betaurrekoak galdu nituen, montura argikoak (zuri gardenak) funda marroi batean (Optica Zumaia jartzen du). Aurkitu badituzu deitu mesedez 861120 telefonora.

AGURRAK

Jon Mikelek Migel Batelai xakean irabazi baietz.

Page Maker + Atxe : BIZI!

Bi Miss Buitrakerrei ZORIONAK!!
Eeeeeeeeeeeeh!
Karri baloia ta inbitau!

PORNO-MAN, ze espektakulo eman huan Ihintzan?
Scotland Free.

Mof, antiajuak galduta normala dek okerreko bidetik jutia. Nola laike mutila hola alperrik galtzia?

Ze Gari? Oraintxe lekeitianan gurutzia eta gero antikristua iten?

Hilario: ZORIONAK!

SALEROSKETAK

MotoGAC berria salgai, 49 c.c.koa. Modu onean. Tel.: 860642.

Salmenta puntuak

- Jesuskoa
- Errota (Erribera)
- Errota (Basadi)
- Errota (J.Belmonte)
- Ogi Berri (Amaia)
- Ogi Berri (Basadi)
- Arkupe okindegia
- Aizpurua liburudenda
- Olanoliburudenda
- Loitz liburudenda
- Alai janaridenda
- Nikol kafetegia
- Inpernupe
- Zalla erretegia
- Foto Gar
- Arroa Behea
- San Telmo janaridenda

**EGOKI
ERLOJU DENDA**


E.Gurrutzaga plaza, 6
ZUMAIA

**ITZURUN
KIROLAK**

Amaiako plaza, 13
Telef. 860758
20750 ZUMAIA



ZUMAIako INSTITUTUAren ESKEINTZA



IZEN-EMATEA

Maiatzaren 2tik 18ra

Goizez
Egunero

10etatik 1era

Arratsaldez

Ostiraletan ezik
4etatik 5 etara

ZUMAIako
INSTITUTUAren
BULEGOAn


L ehiaketa Goxoa

San Telmotan bi nexka polit hauek argazkia ateratzeko eskatu eta KLIK atera genuen. Gutxienez bietako baten izena asmatzen dezuenen artean zozketatuko degu

Txapartegi Gozotegiak

emandako tarta ederra.

Horretarako **maiatzaren 23a** baino lehen utzi beharko dezu erantzuna, sobre batean sartuta Foronda, ONCEko kabina, Foto Mertxe, Aizpurua liburudendan edota Txapartegin bertan. Zorte on!



Apirileko argazkiko guztiak ere ez genituen ezagutzen, baina hantxe zeuden ziur **Aintzane Egaña, Leire Garate, Ibon Manterola** eta **Andoni Txintxilla**.

Zozketa egin ondoren gure harpidedunik gazteenarentzat, **Libe Osa Arzuagarentzat** izan zen hojaldrezko tarta goxoa. Ikusten denez ia bera baino haundiagoa zen eta maiatzaren leian jaso zuen. Gora Langileria!

Besteok badakizue, jarraitu idazten!

LANGINTZA ETA ZERBITZUEN GIDA

INFORMAZIO ERABILGARRIAK:

- Euskararen datuak
- Herriak: azalerak eta biztanleak
- Mapak
- Intereseko telefonoak
- Naturguneak
- Garraiobideak
- Aterpetxeak

ERABILI!!

Egunkaria

